

## MEREZIMENDUEN BAREMOA

1.– Baremaziorako irizpide orokorrak honako hauek izango dira:

<b>AZALPENA</b>	<b>GUTXIENeko PUNTUAZIOA</b>
<b>LAN-ESKARMENTUA ETA BEKAK</b>	25 puntu
<b>IKERKUNTZA-MEREZIMENDUAK</b>	20 puntu
<b>IRAKASKUNTZA ETA KUD. AKA. MEREZIMENDUAK</b>	10 puntu
<b>MEREZIMENDU AKADEMIKOAK</b>	25 puntu
<b>EUSKARA</b>	11 puntu
<b>GEHIENeko PUNTUAZIOA</b>	100 puntu

Gainerako 9 puntuak Batzordearen iritzia araberan banatuko dira; hain zuzen ere, lan-eskarmentuan, ikerkuntza-merezimenduetan, irakaskuntza eta kudeaketa akademikoari dagozkion merezimenduetan edo merezimendu akademikoetan. Batzordeak aktan jaso beharko du 9 puntuen esleipenaren justifikazioa.

Unibertsitateen Lege Organikoaren 63. artikulua aipatzen dituen lehiaketetan parte hartzeko aukera duten hautagaiak lortutako puntuak %20 gehiago izango dira (betiere, ezarritako gehieneko puntuazioa gainditu gabe), Euskara jakitea alde batera utzita eta balorazio-irizpide guztiak batera aintzat hartuta; alegia, 100, hurrenez hurren.

Bide beretik, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko Agentziaren, Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiartzatzeko Agentzia Nazionalaren edo euskal araudiak onartutako antzeko beste zeinahi erakunderen ebaluazio positibo edo aldeko txostena jaso duen hautagaiak lortutako puntuazioa (Irakasle Osoa, Irakasle Agregatua, Irakasle Kontratatu Doktorea, Irakasle Albokoa edo Irakasle Laguntzaile Doktorea izateko) %20 handituko da (betiere, ezarritako gehieneko puntuazioa gainditu gabe), Euskara jakitea alde batera utzita eta balorazio-irizpide guztiak batera aintzat hartuta; alegia, 100, hurrenez hurren. Nolanahi ere, puntuak ezingo dira metatu ebaluazio positibo edo aldeko txosten bat baino gehiago izateagatik. Era berean, unibertsitate-diplomatura, arkitektura tekniko, ingeniari tekniko edo titulu baliokidea izan eta, 2.1.1 artikuluan zerrendaturiko jakintza-arloetan unibertsitate-diplomatura, arkitektura tekniko, ingeniari tekniko edo titulu baliokidearen titulazioa izateko betebeharrak irekiko diren zerrendetara sartu nahi lukeen izangaiak, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiak onartutako antzeko erakunde batek irakasle lankideen irakaskuntza-irudian jarduteko emaniko aldeko balioespena eta

ontzat emana balu, %10 gehituko du lortutako puntuazioa, euskararen jakite-mailarengatik emaniko puntuazioa izan ezin, guztira, gehieneko puntuazio gisa ezarri den muga, hau da, 100 puntutako puntuazioa inola ere gainditu ezin delarik. Balioespen positibo edo aldeko txosten bat baino gehiago izanik ere, ez da puntuazioen gehikuntzarik inola ere metatuko.

Aipatu berri den gehikuntza puntuazio osoari ezarriko zaio, eta ez baremaziorako atal bakoitzean lortutakoari. Kasu honetan, izangairen batek, puntuazioan izandako gehiketa horren ondorioz, puntuazio osoan gehienez ere lor daitezkeen puntuazioa (hau da, 100 puntu), gaindituko balu, gehieneko puntuazio hori berori emanen zaio izangaiari.

## 2.- Ohar orokorrak.

- Ezin da ebaluatu gabe utzi honako balorazio-irizpide hauetan aurreikusitako inolako atalik.
- Merezimendu jakin bat atal batean baino gehiagotan aintzat hartzeko modukoa bada, hautagaiak puntu gehien erdiesten dituen atalean baino ez da zenbatuko.
- Batzordeak gutxieneko nota ezar dezake (inoiz ez 30 puntutik gorakoa), hautagaiak ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendan sar daitezten. Dena den, behar bezala azalduta utzi beharko da dagokion aktan; batez ere, hautagai bakar bat ere sartzen ez bada ordezkapenetarako zerrendan.

- Haztapenak:

- 1.- Izangairen batek atalen batean ezarritako gehieneko puntuazioa gainditu egingo balu, gehieneko puntuazio hori berori emanen zaio izangaiari, baina, hala izanik ere, gainontzekoei ez zaie puntuazioa proportzionalki haztatuko atal horretan.
2. Atal bakoitzari emandako puntuazioa 1/0,8/0,5/0,1 koefizienteekin haztatu ahal izango da, modu arrazoituari; alegia, merezimenduak jakintza-arloaren ezaugarriei egokitzen zaien neurriaren arabera. Aurretik aipatutakoari kalterik egin gabe, Batzordeak 0 puntu eman diezaieke poltsaren ezaugarriekin batere harremanik ez duten merezimenduei. Nolanahi ere, aipatutako koefizienteak aplikatzean jarraitu beharreko prozedura zehatz-mehatz azalduko dugu merezimenduen baremoa zehaztean. Prozedura horrek espresuki adierazi beharko ditu haztapen-faktoreak aplikatuko diren baremoaren atalak, eta baita horiek aplikatzeko modu zehatza ere; xehetasunez adierazi beharko du zer joko den berariazkoztat eta zer antzekotzat.

## 3.- Baremaziorako irizpide espezifikoak:

### 1.- Lan-eskarmentua eta beka-denboraldia

<b>MEREZIMENDUA</b>	<b>BAREMO OROKORRA</b>
Unibertsitate-irakaskuntza	$\leq 4$ puntu/urtea
Doktoratu aurreko ikertzailea / lankidea	$\leq 2$ puntu/urtea

Doktoratu ondoko ikertzailea	$\leq 3$ puntu/urtea
Unibertsitate-irakaskuntzaz eta -ikerakuntzaz kanpoko eskarmentua	$\leq 3$ puntu/urtea
MECEk, Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUK antolatutako deialdi ofizialeko doktoratu aurreko beka	$\leq 2$ puntu/urtea
MECEk, Eusko Jaurlaritzak eta UPV/EHUK antolatutako deialdi ofizialeko doktoratu ondoko beka	$\leq 3$ puntu/urtea
Beste beka eta laguntza batzuk	$< 0,5$ puntu/urtea

- Azken 10 urteak puntuatuko dira, eta ez da zenbatuko hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo amatasun-baimenagatik izandako lan-utzialdiaz gozatu duen denboraldia; ezta ere 6 hilabetetik gorako gaixotasunagatiko baimenik ere (egoera egiaztatu beharko da).
- Lanaldi partzialean moduan eskainitako zerbitzuak haztatzeko, honako unitate-erreferentzia hauek erabiliko dira unibertsitate-irakaskuntzarako: 24 kreditu urtean edo 8 irakastordu astean.
- Ez da beharrezkoa izango Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean eskainitako irakaskuntza-zerbitzuak egiaztatzea (lanbide-administrazioak berak erantsiko ditu). Nolanahi ere, lehiakideek eskainitako gaiei buruzko egiaztagiria aurkeztu ahal izango dute.
- Irakaskuntza publikoan eskainitako irakaskuntza-zerbitzuak, hain zuzen, eskainitako gaiei buruzko zerbitzu-orriaren eta egiaztagiriaren bitartez egiaztatu beharko dira.
- Irakaskuntza pribatuan eskainitako irakaskuntza-zerbitzuak, berriz, lan-kontratuaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako egiaztagiriaren bitartez egiaztatuko dira. Egiaztagiri horretan, ikastegiaren (enpresaren) izena eta altan egondako denboraldia zehaztu beharko dira. Era berean, eskainitako gaiei buruzko egiaztagiria ere erantsi beharko da.
- Ikertzaile moduan eskainitako zerbitzuak, bestalde, doktore ondoko ikertzaile atalean hartuko dira aintzat, baldin eta hautagaiak egiaztatzen badu kontratu horretarako Doktore titulua eskatzen dutela. Hala ez bada, doktore aurreko ikertzailea atalean hartuko dira aintzat; hautagaiak aipatutako titulua izan ala ez.
- Lan-eskarmentua, oro har, honelaxe egiaztatu beharko da:
  - Besteren konturako lan-eskarmentua baldin bada, lan-kontratuaren kopiaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren egiaztagiriaren bitartez. Enpresa-egiaztagiria ere gehitu beharko da; eta bertan, lanpostuak eta egindako zereginak azalduko dira.
  - Norberaren konturako lan-eskarmentua baldin bada, berriz, gauzatutako jardueren zinpeko aitopenen eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emandako denboraldiekin bat datorren Ogasunaren egiaztagiriaren bitartez. Aipatutakoaz gainera,

beharrezkoa izango da gauzatutako lana egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztea (esate baterako, BEZ aitortpenak).

- Beka-denboraldia egiaztatzeko, beken deialdia egin zuen erakundearen egiaztagiria aurkeztu beharko da. Egiaztagiri horrek espresuki adierazi beharko du bekaren hasiera- eta amaiera-data, eta baita beka-denboraldian etenen bat egin ote den ere.

## 2.- Ikerkuntza-merezimenduak.

<b>MEREZIMENDUA</b>		<b>BAREMO OROKORRA</b>
Ikerkuntza-proiektuak	Kanpoko erreferentziarekin	
	Ikertzaile nagusia	≤ 1,25 puntu/urtea
	Laguntzailea	≤ 0,75 puntu/urtea
	Kanpoko erreferentziarik gabe	
	Ikertzaile nagusia	≤ 0,37 puntu/urtea
	Laguntzailea	≤ 0,25 puntu/urtea
Arte Ederrei dagokienean, Ebaluazio Batzordeak lehiakidearen lan plastikoaren ikerkuntza-izaera erabaki ahal izango du; eta txosten argigarri baten bitartez, ≤5 punturekin ebaluatu beharko du.		
Argitalpenak, garrantziaren, eraginaren eta plazari begira duen egokieraren arabera.	Liburua	≤ 5 puntu
	Liburuaren kapitulua	≤ 2,5 puntu
	Artikulua	≤ 3 puntu
	Arte Ederretako katalogoa (gehienez ere 5)	≤ 0,5 puntu
Patenteak		≤ 2 puntu
Biltzarrak	Hitzaldia	≤ 1 puntu
	Jakinarazpena	≤ 0,5 puntu
Tesi-zuzendaritza		≤ 3 puntu
IAD/master amaierako lanak zuzentzea		≤ 0,5 puntu
Ikerkuntza Ikastegietan egindako egonaldiak (bi hilabetetik gorakoak)		≤ 2 puntu/urtea

Beste ikerkuntza-merezimendu batzuk	≤ 1 puntu, guztira
-------------------------------------	--------------------

- Azken 10 urteak puntuatuko dira, eta ez da zenbatuko hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo amatasun-baimenagatik izandako lan-utzialdiaz gozatu duen denboraldia; ezta ere 6 hilabetetik gorako gaixotasunagatiko baimenik ere (egoera egiaztatu beharko da). Besterik adierazi ezean, ezarritako puntuazioak unitateko izango dira.

3.- Irakaskuntza eta kudeaketa akademikoari dagozkion merezimenduak:

MEREZIMENDUA		BAREMO OROKORRA
Ikasmateriala	Liburuak	≤ 2 puntu
	Kapituluak	≤ 1 puntu
	Izen handiko argialetxeetan argitaratutako irakaskuntzako materiala edo irakaskuntza-ikaskuntzako zentro birtualetarako egindakoak, betiere, zentro ebaluatuak badira.	≤ 0,5 puntu
Ikasketaren berrikuntzarako proiektuak	Arduraduna	≤ 0,5 puntu
	Lankidea	≤ 0,25 puntu
Zientzi dibulgaziorako argitarapenak		≤ 0,25 puntu
Irakaskuntza-lanaren inkesta positiboa		≤ 1 puntu/urte
Irakaskuntza unibertsitateko master ofizialetan		≤ 1 puntu /3 kreditu
Karrera/gradu-amaierako lanak/proiektuak zuzentzea		≤ 0,25 puntu
Unibertsitatean beste hizkuntza batzuetan egindako irakaskuntza-lana (hizkuntza ofiziala ez bada eta ez jakintza arloko berariazkoa)		≤ 1 puntu/irakasgai/urte
Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko ikastaroak ematea		≤ 0,5 puntu /3 kreditu
Irakaskuntza-berrikuntzako prestakuntza egiaztatua		≤ 0,25 puntu /3 kreditu

Hizkuntzak	C2 ≤ 5 puntu C1 ≤ 4 puntu B2 ≤ 2 puntu B1 ≤ 1 puntu
Unibertsitate eta ordezkari-tza-organoetan aritzea	≤ 1 puntu/urte

- Azken 10 urteak puntuatuko dira, eta ez da zenbatuko hautagaiak senitartekoak zaintzeko edo amatasun-baimenagatik izandako lan-utzialdiaz gozatu duen denboraldia; ezta ere 6 hilabetetik gorako gaixotasunagatik baimenik ere (egoera egiaztatu beharko da). Besterik adierazi ezean, ezarritako puntuazioak unitateko izango dira.
- UPV/EHUren master ofizialetan irakatsi duela egiaztatzeko, GAUREn dagokion grabazioa egin beharko da.
- Izartxoaz markaturiko ataletan euskaraz egindako merezimenduak 1,5ekin biderkatuko dira.

#### 4.- Merezimendu akademikoak.

MEREZIMENDUA		BAREMO OROKORRA
Batez besteko nota		x 1 puntu
Sari berezia:	Lizentzia	≤ 2 puntu
	Doktoregoa	≤ 2 puntu
Nazioarteko tesia		2 puntu
Doktorego-programa (32 kreditu)		≤ 2 puntu
IAD (Ikasketa Aurreratuen Diploma)		≤ 1 puntu
Master ofiziala		≤ 3 puntu
Doktore-titulua		12 puntu
Masterrak eta graduondoko ikasketa ofizialak, 30 kreditutatik gorakoak		≤ 2 puntu
Unibertsitateko bestelako titulazioak		≤ 3 puntu

Bestelako merezimenduak	≤ 2 puntu guztira
-------------------------	-------------------

\* Batez besteko nota: Espedientearen batez besteko nota adierazten den egiaztagiri akademikoetan, beti hartuko da aintzat batez besteko nota hori.

Batez besteko nota ageri ez bada, eta irakasgaien kalifikazioak zenbakiz adierazita agertzen badira, horien batez besteko puntuazioa aterako da.

Kalifikazioak hitzez adierazita baldin badaude, berriz, honako baliokidetasun hauek aplikatuz aterako da batez bestekoa:

- Ohorezko matrikula: 10.
- Bikain: 9.
- Oso ongi: 7,5.
- Nahiko, baliozkotua, gai: 5,5.

Aukera askeko irakasgaiak ez dira, inola ere, kontuan hartuko, batez besteko nota ateratzeko.

Norbanakoaren egiaztagiri akademikoa bidali ezean, hautagaiaren batez besteko nota gainditua dela ulertuko da.

#### 5.- Euskara jakitea

Hizkuntzen Balioespenerako Europar Erreferentziazko Esparru Bateratuko C2 mailaren titulu baliokideak	11
Hizkuntzen Balioespenerako Europar Erreferentziazko Esparru Bateratuko C1 mailaren titulu baliokideak	8,8
HABEko 12. maila; ikasketak euskaraz (gutxienez %50)	6,6
HABEko 11. Maila; Euskara Teknikoa	6,2
HABEko 10. maila	5,7
Administrazioko 2. hizkuntza-eskakizuna; Hezkuntzako 1. hizkuntza-eskakizuna, B2	5,3
HABEko 9. maila	4,8
HABEko 8. maila	4

Administrazioko 1. hizkuntza-eskakizuna, B!	3,5
HABEko 7. maila	3,1
HABEko 6. maila	2,6
HABEko 5. maila	2,2
HABEko 4. maila	1,8
HABEko 3. maila	1,3
HABEko 2. maila	0,9
HABEko 1. maila	0,4

Euskaltegi homologatuetan gainditutako ikasturteak HABEn gainditutakoak bezalaxe onartuko dira.

<b>Euskararekin lotutako beste merezimendu batzuk (gehienez 2,2 puntu)</b>	
Euskara hobetzeko ikastaroak	1 puntu/100 ordu
Euskara teknikoa edo antzeko irakasgaiak	1 puntu/10 kreditu

6.– Puntu-berdinketak hausteko irizpideak.

Guztizko puntuazioetan berdinketak gertatuz gero, honako hauen arabera erabakiko da:

- Unibertsitateen Lege Organikoaren 63. artikuluko indargabetuak edo oraingo 57. artikuluko aipatutako lehiaketetan parte hartzeko aukera duten pertsonak izatea.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko Agentziak, Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalak edo euskal araudiak onartutako antzeko beste zeinahi erakundek emandako ebaluazio positiboa izatea, Irakasle Osoa, Irakasle Agregatua, Irakasle Kontratatu Doktorea edo Irakasle Laguntzailea izateko.
- Lan-eskarmentua eta beka-denboraldia atalean gehieneko puntuazioa izatea.
- Ikerkuntza-merezimenduak atalean gehieneko puntuazioa izatea.
- Ikasketen espedientea atalean gehieneko puntuazioa izatea.



- Irakaskuntza eta kudeaketa akademikoari dagozkion merezimenduak atalean gehieneko puntuazioa izatea.

Hala eta guztiz ere berdinketa hautsi ezin bada, abizenen eta izenen ordena alfabetikoari begiratuko zaio. Era horretan, Unibertsitateak berak zozketa bat egingo du, eta bertan erabakiko da zer letratik hasiko diren aukeratzen, data jakin bateko deialdi guztietarako.

#### 7.- Haztapen Faktoreak / Baremoa

<b>Haztapen Faktoreak</b>	<b>Baremoa</b>
Aplikatu diren baremoaren atalak	
Nola aplikatu da zehatz-mehatz	
Espezifikotzat hartzen da	
Lehen graduko kideztzat hartzen da	
Bigarren graduko kideztzat hartzen da	
Hirugarren graduko kideztzat hartzen da	